

A LA MESA DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

Los Parlamentarios y Parlamentarias abajo firmantes, de acuerdo con lo establecido en la Ley Orgánica de Reintegración y Amejoramiento del Régimen Foral de Navarra y en el Reglamento del Parlamento de Navarra, proponen, a fin de exigir la responsabilidad política al Gobierno de Navarra y a su Presidenta, la presente **MOCIÓN DE CENSURA**:

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS:

Navarra se halla inmersa en una profunda crisis social, política y económica, caracterizada por el grave retroceso económico y la destrucción de tejido productivo, el incremento del desempleo y un fuerte deterioro de servicios públicos básicos y prestaciones sociales. El resultado es una creciente fractura social por el aumento de las desigualdades en detrimento de la solidaridad y la justicia social, manifestado en tasas de pobreza y exclusión social inéditas en nuestra sociedad.

Ciertamente, la situación se debe en parte a la crisis económica internacional; pero también, y no en menor medida, es consecuencia directa de las políticas desarrolladas por el actual Gobierno de Navarra, hasta el punto de que la actuación pública y los recortes presupuestarios son agente activo y principal de la situación. A ello se añade la tendencia privatizadora de aquellas partes susceptibles de generar beneficios de servicios públicos esenciales como la sanidad y la educación, lo que redundará en un mayor deterioro de la calidad de dichos servicios, en perjuicio especialmente de las personas y grupos sociales más débiles. Todo ello en aplicación de unas ideas y unos enfoques puramente ideológicos, sin sustento alguno y que se demuestran ineficaces o contraproducentes una y otra vez, allá donde se aplican. Por tanto, de mantenerse las políticas actuales sólo cabe esperar más desempleo, más pobreza y más desigualdad, que terminarán convirtiéndose en estructurales de no mediar un enérgico cambio.

Conviene, además, recordar que la Sra. Barcina fue investida por mayoría absoluta. A día de hoy, sin embargo, las circunstancias son bien distintas: roto el Gobierno de coalición en junio de 2012, el actual gobierna en minoría, ha sido incapaz de conseguir la aprobación de los Presupuestos para 2013 y ve cómo la mayoría de la Cámara rechaza buena parte de sus iniciativas. Así pues, Navarra debe enfrentarse a un contexto económico y social tan grave como el descrito con un Gobierno paralizado, desconcertado e inoperante.

A mayor abundamiento, podemos decir sin temor a exagerar que la sociedad navarra ha asistido atónita al devenir de Caja Navarra hasta su desaparición de hecho; y asiste escandalizada a lo que se va conociendo de las indagaciones judiciales relacionadas con sus órganos de gobierno. Actuaciones presuntamente irregulares que involucran a personas relevantes de UPN, entre ellas un expresidente del Gobierno de Navarra y el alcalde de Pamplona y que pueden llegar a afectar a la propia presidenta Sra. Barcina.

Urge, pues, cambiar este estado de cosas y la única herramienta para ello a disposición del Parlamento es la moción de censura, dado que la Presidenta del Gobierno ha desoído incluso la petición de dimisión que le formuló la Cámara.

Por todo ello, los Parlamentarios y Parlamentarias abajo firmantes proponen la presente **MOCIÓN DE CENSURA** y como candidato a la Presidencia del Gobierno de Navarra a **D. JUAN CARLOS LONGÁS GARCÍA**, quien acepta su candidatura. Con esta moción de censura se asumen los siguientes compromisos básicos:

- 1. Proceder a la convocatoria de elecciones al Parlamento de Navarra con el fin de que sea la ciudadanía la que se manifieste sobre el rumbo político futuro de Navarra.**
- 2. Constituir un Gobierno plural y de amplia base política con el fin de conocer el estado real de las cuentas de Navarra, asegurar la transparencia de las actuaciones desarrolladas en los últimos años por los sucesivos Gobiernos, revisar los Presupuestos y corregir los efectos más dramáticos e inmediatos de los recortes sociales y en servicios públicos básicos realizados en los últimos años.**

Pamplona-Iruña, 5 de abril de 2013

NAFARROAKO PARLAMENTUKO MAHAIARI

Behean sinatzen dugun parlamentariok, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuarekin bat, ondoko **ZENTSURA MOZIOA** proposatzen dugu, Nafarroako Gobernuari eta bere lehendakariari erantzukizun politikoa exijitzeko xedez:

ZIOEN AZALPENA

Nafarroak krisi sozial, politiko eta ekonomiko sakona bizi du; izan ere, larriak dira atzeraldi ekonomikoa eta produkzio-ehunaren suntsiketa, langabezia gora egiten ari da eta nabarmen narriatzen ari dira oinarrizko zerbitzu publikoak eta gizarte-prestazioak. Ondorioz, gero eta handiagoa da gizarte-haustura, desberdintasunak areagotzen ari baitira elkertasunaren eta gizarte-justiziaren kaltetan, gure gizartean orain arte ezezagunak izan diren pobrezia eta gizarte-bazterketaren tasek erakusten dutenez.

Egia da egoera nazioarteko krisi ekonomikoari zor zaiola hein batean; baina, orobat egia da, eta ez txikiagoa, egungo Nafarroako Gobernuak darabiltzan politiken ondorio zuzena dela, jardun publikoa eta aurrekontu murrizketak egoeraren agente aktibo eta nagusia direlako. Horri guztiari gehitu behar zaio mozkinak sortzen ahal dituzten oinarrizko zerbitzu publikoak privatizatzeke joera; esate baterako, osasungintza eta hezkuntza. Horrek, jakina, zerbitzu horien kalitatea areago narriatzea ekarriko du, pertsona eta gizarte-talde ahulenen kaltetan bereziki. Eta hori guztia ideia eta ikusmolde ideologiko hutsak aplikatuta egiten ari dira, inolako oinarririk gabe, nahiz eta behin eta berriro frogatu den, ideia eta ikusmilde horiek aplikatu izan diren tokietan, ez direla eraginkorrak eta are kaltegarriak direla. Hortaz, egungo politikak mantentzen baldin badira, langabezia areagotzea besterik ez da lortuko, pobrezia eta desberdintasunak areagotzea, egiturazkoak bihurtzeraino, errotiko aldaketa bat egin ezean.

Gogorarazi beharra dago, halaber, Barcina andrea gehiengo osoarekin hautatua izan zela. Gaur egun, aldiz, egoera oso bestelakoa da: koalizio gobernua 2012ko ekainean hautsi zen, gobernuak ez dauka gehiengorik, ez da gai izan 2013rako aurrekontuak onets daitezen lortzeko, eta Legebiltzarraren gehiengo bere ekimenak aldiro baztertzen ari da. Hartara, Nafarroak halako egoera ekonomiko eta sozial larri horri egin behar dio aurre, baina Gobernua paralizatuta daukagu, noraezean eta eragiteko gaitasunik gabe.

Are gehiago, esajeratzeko beldurrik gabe esan dezakegu Nafarroako gizarteak zur eta lur ikusi duela Nafarroako Kutxaren bilakaera, berez desagertzearainokoa; eta eskandalizatuta bizi ditu Kutxaren gobernu-organoak direla-eta ikerketa judiziala ematen ari den emaitzak. Jokabide ustez irregularrak dira, zeinetan nahasita ageri baitira UPNko kide garrantzitsuak; besteak beste, Nafarroako Gobernuko lehendakari ohi bat eta Iruñeko alkatea, eta baliteke Barcina andrea bera ere ukitzea.

Premiazkoa da, beraz, egoera hori aldatzea, eta zentsura mozioa da Parlamentuak horretarako eskueran daukan tresna bakarra, zeren Gobernuko lehendakariak entzungor egin baitio Legebiltzarrak egin zion dimisio-eskaerari berari ere.

Horregatik guztiagatik, behean sinatzen dugun parlamentariok **ZENTSURA MOZIO** hau aurkezten dugu, eta **JUAN CARLOS LONGÁS GARCÍA** jaunaren hautagaitza aurkezten dugu, zeinak onartu egin baitu hautagai izatea. Zentsura mozio honen bidez oinarrizko konpromiso hauek hartzen ditugu:

- 3. Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak deitzea, herritarrek Nafarroaren etorkizuneko norabide politikoari buruzko iritzia eman dezaten.**
- 4. Gobernu askotariko eta oinarri politiko zabaleko bat eratzea, Nafarroako kontuen egoera zein den jakiteko, azken urteotan gobernuek egindako jarduketan gardentasuna ziurtatzeko, aurrekontuak berrikusteko eta oinarrizko zerbitzu publikoetan azken urteotan egindako murrizketa sozialen ondorioz dramatikoenak eta berehalakoenak zuzentzeko.**

Iruñean, 2013ko apirilaren 5ean

- 1.- Koldo AMEZKETA DIAZ
- 2.- Miren Julia ARANOA ASTIGARRAGA
- 3.- Bikendi BAREA AYESTARÁN
- 4.- Asun FDEZ. DE GARAIALDE y LAZKANO SALA
- 5.- Txentxo JIMÉNEZ HERVÁS
- 6.- Xabier LASA GORRAIZ
- 7.- Juan Carlos LONGÁS GARCÍA
- 8.- Nekane PÉREZ IRAZABAL
- 9.- Maiorga RAMIREZ ERRO
- 10.- Victor RUBIO MARTÍNEZ
- 11.- Barkatxo RUIZ JASO
- 12.- Aitziber SARASOLA JACA
- 13.- Patxi ZABALETA ZABALETA